



sortu

ESPACIO

Galderak

FUTURE

ideas

Preguntas

URVIEHU

$E=mc^2$

DISCOVER

Ideiak

ecología

Solución

Learning

Ikasi

berrikuntza

CREATION

SOCIEDAD

# Espainiako Historia USE 2018

[www.ehu.eus](http://www.ehu.eus)

literature

40% 30% 60%





**Azterketa honek bi aukera ditu. Horietako bat erantzun behar duzu.**

**Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.**

**Zuzenketa eta kalifikazio irizpide espezifikoak:**

1. Gaia: 5 puntu. Gaiaren kalifikazioa irizpide hauen arabera egingo da:
  - a. Galdetzen denari egokitzeko gaitasuna: 1 p.
  - b. Kontzeptu eta hiztegi espezifikoak ondo erabiltzea: 1 p.
  - c. Gaia bere testuinguruan jartzea: 3 p.
2. Testu iruzkina: 5 puntu. Testuaren kalifikazioa irizpide hauen arabera egingo da:
  - a. Testuaren kokapena (testu mota, egile, jasotzaileak, garaia): 0,5 p.
  - b. Testuaren analisia: testuaren oinarriko ideiak nabarmentzea: 1,5 p.
  - c. Testuinguruan jartzea: testua bere prozesu historikoan ezartzea: 2,5 p.
  - d. Testuaren garrantzia: kokatzen den aldi historikoa ulertzeko, testu horrek duen garrantzia adieraztea: 0,5 p.

**Este examen tiene dos opciones. Debes contestar a una de ellas.**

**No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.**

**Criterios específicos de corrección y calificación:**

1. Tema: 5 puntos. La calificación del tema se ajustará a los siguientes criterios:
  - a. Capacidad para ajustarse a lo que se pregunta: 1 p.
  - b. Uso adecuado de los conceptos y vocabulario específico: 1 p.
  - c. Contextualización del tema: 3 p.
2. Comentario de texto: 5 puntos. La calificación del texto se ajustará a los siguientes criterios:
  - a. Localización del texto (tipo de texto, autor, destinatarios, época): 0,5 p.
  - b. Análisis del texto: resalta las ideas fundamentales del texto: 1,5 p.
  - c. Contextualización: encuadra el texto en su proceso histórico: 2,5 p.
  - d. Importancia del texto: destaca su importancia para comprender el período histórico en el que está inscrito: 0,5 p.



## A AUKERA

### **GAIA: EUSKAL HERRIAKO INDUSTRIALIZAZIOA ETA HAREN GIZARTE-ONDORIOAK (1875-1823).**

### **TESTU-IRUZKINA: FRONTE POPULARRAREN PROGRAMA (1936-01-16)**

Alderdiak (...) berehala izango den hauteskunde-lehian euren indarren koalizioari oinarri eta kartel gisa balioko dien plan politiko komuna adostera iritsi dira. (...) Koalizioan elkartutako alderdiek honako konpromiso hauek hartu dituzte:

Lege baten bitartez, 1933ko azaroaz geroztik egindako delitu politiko eta sozialen amnistia zabala ematea, auzitegiek halakotzat jo ez bazituzten ere (...)

Askatasunaren eta justiziaren defentsan, estatu errepublikazalearen eta haren erregimen konstituziogilearen funtsezko misio gisa, koalizioan elkartutako alderdiek Konstituzioaren agintea berrezarriko dute. (...)

Errepublikazaleek ez dute onartzen lurra nazionalizatu eta nekazariei emateko printzipioa, alderdi sozialistako ordezkariak eskatua. Baina komenigarritzat jotzen dituzte nekazariak askatzea lortu nahi duten zenbait neurri (...)

Alderdi errepublikazaleek ez dituzte onartzen langile-alderdiek bankuak nazionalizatzeko proposatutako neurriak; baina, bestalde, onartzen dute gure banku-sistemak hainbat hobekuntza behar dituela (...).

Alderdi errepublikazaleek ulertzen duten Errepublika ez da klase-arrazoi sozial edo ekonomikoek zuzendutako errepublika bat, interes publiko eta aurrerapen sozialeko arrazoiak bultzatutako askatasun demokratikoko erregimen bat baizik. Baina, arrazoi ausart horrexegatik, politika errepublikazaleak produkzioaren interes orokorrak uzten duen muga goreneraino igo behar lituzke langileen baldintza moralak eta materialak, muga horretatik kanpo pribilegio sozial eta ekonomiko guztiei ezarri beharreko sakrifizioak direnak direla. Alderdi errepublikazaleek ez dute onartzen alderdi sozialistaren ordezkariak eskatutako langile-kontrola.

*El Socialista* (Madril), 1936ko urtarrilaren 16a.



## B AUKERA

### **GAIA: DIKTADURA FRANKISTAREN FINKAPENA ETA KRISIALDIA (1959-1975)**

#### **TESTU-IRUZKINA: 1876KO UZTAILAREN 21EKO LEGEA**

Alfontso XII.a jainkoaren graziaz Espainiako Errege konstituzionala denak honako hau ikusi eta ulertzen duzuen guztioi hau jakinarazten dizue: Gorteeek honako hau agindu dutela eta nik berretsi dudala:

1. art. Legeak deitutakoan arma zerbitzura joateko eta norberaren ondasunen proportzioan Estatuko gastuetan laguntzeko betebeharrak ezarri dizkie Konstituzioak espainiar guztiei, eta betebeharrak horiek, eskubide konstituzionalak dagozkien bezala, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako biztanle guztiei egokituko zaizkie, nazioko gainerako biztanleei bezalaxe.

2. artikulua. Aurreko artikuluan xedatutakoaren kariaz, aipatutako hiru probintziak behartuta daude (...), armadako soldadualdi arrunt eta berezien kasuan, Legeen arabera dagozkien gizonezko-kuota aurkeztera.

3. artikulua. Era berean, (...) Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako probintziak behartuta daude Estatuko aurrekontu orokorretan esleitutako kontribuzio, errenta eta zerga arrunt eta bereziak ordaintzera, dagozkien proportzioan, gastu publikoetarako.

4. artikulua. Gobernuari baimena ematen zaio, dagozkion egunean Gorteei berri emanaz eta 1837ko irailaren 19ko eta 1841eko abuztuaren 16ko legeak eta urte bereko urriaren 29ko dekretua kontuan hartuz, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko probintzien onespenearekin, eta egokitze jotzen badu, lehengo foru-araubidean eskatzen dituzten erreforma guztiak onartzeko, euskal herrien ongizaterako nahiz nazioaren gobernu onerako eta segurtasunerako badira.

Jauregian, 1876ko uztailaren 21ean.- Ni, Erregea.- Antonio Cánovas del Castillo, Ministro Kontseiluko Presidente.

*Gaceta de Madrid*, 1876ko uztailak 25.



## CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

### ESPAINIAKO HISTORIA

#### Ebaluazio-irizpideak

1. Espainiaren historia eta euskal historia garaikidea osatzen duten prozesu azpimarragarrienak ezagutzea, eta gertaera politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalen arteko erlazioak identifikatzea.
2. Prozesu historikoetan gauza batzuk zergatik aldatzen diren eta beste batzuek zergatik irauten duten azaltzen duten faktoreak ulertzea, eta gizarte-gertaerei lotutako kausalitate-aniztasunaz ohartzea.
3. Oinarrizko kontzeptu eta termino historikoak ulertzea eta egokiro erabiltzea.
4. Ikasgaiaren edukiak egokitasunez adieraztea eta jakinaraztea.

#### Zuzentzeko eta kalifikatzeko irizpide espezifikoak

1. Gaiak nahiz testu-iruzkinak gehienez 5 puntu balioko dute; beraz, azken nota 0 eta 10 punturen artean egongo da.
2. Gaiaren kalifikazioa irizpide hauen arabera egingo da:
  - a. Galdetzen denari egokitzeko gaitasuna: 1 p.
  - b. Kontzeptu eta hiztegi espezifikoak ondo erabiltzea: 1 p.
  - c. Gaia bere testuinguruan jartzea (beste gertakizun sinkroniko batzuekin erlazionatzea): 3 p.
3. Testu-iruzkinerako
  - a. Testuaren kokapena (testu mota, egilea, jasotzaileak, garaia): 0,5 p.
  - b. Testuaren analisisa: testuaren oinarrizko ideiak nabarmentzea: 1,5 p.
  - c. Testuinguruan jartzea: testua bere prozesu historikoan ezartzea: 2,5 p.
  - d. Testuaren garrantzia: kokatzen den aldi historikoa ulertzeko, testu horrek duen garrantzia adieraztea: 0,5 p.

#### Oharrak

Ohar hauek betetzeak asko lagunduko du bigarren zuzenketa- eta erreklamazio-prozesuan.

1. Bi galderetako bakoitzean izandako kalifikazioa argi eta garbi adierazi behar da ariketan.
2. Ariketetan izandako erroreak ere adierazi behar dira eta, egoki joz gero, aplikatutako balorazioaren irizpideen azalpen labur bat ere emango da.